

2025eko Santo Tomas eguneko balantzea

Santo Tomas eguna eguraldi oso txarrak markatutako testuinguruan garatu da, egunaren zati handi batean euri etengabearekin eta ipar haize bortitzarekin. Hala ere, ferria aurreikusitako moduan aurrera ateratu da eta jardunean mantendu da hasieratik amaierara arte. Egurdiko ordutegian zehar, jendearen presentzia nabarmena izan da kaleetan, giro alai eta bizia sortuz, eta egitarauan jasotako jarduerak gehienak egin ahal izan dira.

Lehiaketan atalean, **Barazki eta Fruituen Lehiaketa – Jose Salaberria Memorialak** tokiko produktuaren kalitatea nabarmendu du beste behin. Barazkien kategorian, lehen saria Carmen Etxeberria Irustak (Bergara) eskuratu du, bigarrena Ezozi Etxeberria Irustak (Soraluze) eta hirugarrena Arantza Zubia Gastañagak (Mallabia). Fruituen kategorian, lehen saria Maddi Iradi Peñagarikanok (Hernani) jaso du eta bigarrena Aitor Elozegi Arrizabalagak (Gabiria); hirugarren saria hutsik geratu da. Jose Salaberria Memoriala ere Maddi Iradi Peñagarikanori eman zaio.

Euskal Herriko XXIX. Txistor Lehiaketan, lehen saria Mikel Pérez Belaunzaranez jaso du, Embutidos Etxekoak (Oiartzun), bigarrena Andrés Jesús Espinal Morenok, Embutidos Fernández (Irun), eta hirugarrena José Ignacio Bengoetxea Armendarizek, Bengoetxea Harategia (Donostia).

Donostialdeko Ezti Lehiaketan, Markox Pagolak (Hernani) lortu du lehen saria, ondoren Patxi Franco (Andoain) eta Jagoba Larrauri (Andoain). **Txorimalo Lehiaketan**, lehen eta hirugarren sariak Jai Toki Kultur Elkartek (Furius) jaso ditu, eta bigarren saria Nerea Maestro Perezentzat izan da. **“Txistorra gastronomian” III. Gastronomía Lehiaketan**, Beti Lagunak Elkartea (Irun) izan da garailea, ondoren Ilunpe Elkartea eta Toki Alai, biak Donostiakoak.

Kirol arloan, **emakumezkoen esku pilota txapelketa Antiguoko frontoira** lekualdatu behar izan da eguraldi txarra zela eta, jarduerak baldintza egokietan egin ahal izateko. Bestalde, **emakumezko aizkolarien VIII. Urrezko Kopa, Trinitate plazan** jokatu da, eta kirolariek diziplina honenganako duten grina eta konpromisoa agerian utzi dute, proba euri zaparrada etengabearen azpian eginez.

Haurrentzako jarduerari dagokienez, **Zuloaga plazako haurrentzako jolasak** eguerdira arte bakarririk egin ahal izan dira ipar haize gogorra eta euriaren ondorioz. Hala ere, **“Margotu Poxpolin Txerria eta sartu bere etxetxoan” tailerra** normaltasunez eta gorabehera aipagarririk gabe garatu da.

Donostiako Baserritar Jantzien Lehiaketak parte-hartze handia izan du kategoria guztietan, jantzi tradizionalarekiko zaintza eta errespetua agerian utziz.

16:00etatik aurrera, eguraldiak nabarmen hobera egin du, eta horrek **arratsaldean zehar jende gehiago kalera ateratzea** ekarri du. Hobekuntza horri esker, **arratsaldeko jarduerak normaltasun handiagoz garatu ahal izan dira**, eta **txistorraren zein gainerako feriako produktuen salmenta berriro indartu da**, jaia amaierara arte giro onean eta jendetsu mantenduz.

Feriako **txistor postuekin eta gainerako salmenta-postu batzuekin** hitz egin ondoren, jasotako sentsazioa **aurreikusitakoa baino hobea** izan da. Eguraldi oneko beste urte batzuekin alderatuta kontsumoa apalagoa izan bada ere, **inork ez du azoka esperientzia onik gabe utzi**, eta parte-hartzaileek **hurrengo edizioetan berriro parte hartzeko asmoa** adierazi dute. Datorren urtera begira, **eguraldiak laguntzea** espero da, Santo Tomasen indarra are gehiago sendotzeko.

Egunaren balantzea oso positiboa da, herritarren eta parte-hartzaileen konpromisoa nabarmenduz, beste behin ere erakutsi baita Santo Tomas Donostiako ezinbesteko hitzordua dela, eguraldiak laguntzen ez duenean ere.

ZENBAKI BATZUK

Edalontziak: aurten azokan parte hartzen dutenen eskura jarritako 45.000 edalontzietatik 27.000 erabili dira

Olio: aurten 1.550 litro jaso dira

Donostia, 2025eko abenduaren 21a